

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

94/2019 Dekretua. Eskuordetze berezia zinegotzi bati, ezkontza zibila baimentzeko 2019ko apirilaren 27an

Ikusirik abenduaren 23ko 35/1994 Legearen artikulua bakarra, Kode Zibila aldatzen duena alkateek ezkontzarako baimena emateari dagokionez, zeinaren 51. artikulua idazkuntza berriak lehen puntuan ezartzen baitu ezkontza baimentzeko eskumena erregistro zibilaren ardura duen epaileak eta ezkontza egingo den udalerriko alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak izango dutela.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.s) artikulua, artikulua horren 3. puntuak eta 23.4 artikulua eta Toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 43., 44. eta 45. artikuluek ezarritakoa kontuan harturik, honako hau

Ebatzi dut

Lehenengoa. Iñaki Beitia Urcelay zinegotziari eskuordetze berezia ematea baimentzeko 2019ko apirilaren 27an, 12:30ean, udaletxean egingo den ezkontza zibila.

Bigarrena. Ebazpen hau zinegotzi interesdunari jakinaraztea, hurrengo bilkuran udalbatzari haren berri ematea, eta ALHAOn eta udalaren iragarki taulan argitaratzea.

Hirugarrena. Bat etorri azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 44. artikulua 2. apartatua xedatutakoarekin, dekretu hau eman eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak eskuordetze honek.

Bastida, 2019ko apirilaren 17a

Alkate-lehendakaria
LAURA PÉREZ BORINAGA